ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko maiatzaren 8a, asteazkena • 53 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

# INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**97/2019 Foru Agindua, apirilaren 17koa, zeinak Laminoriako Errege Haraneko Administrazio Batzarrak sustatutako proiektuaren interes publikoa adierazten baituen. Proiektuaren xedea da Musituko herrian araztegi sistema berria eraikitzea, 5 poligonoan, 87, 72, 80, 520, 519 eta 515 lurzatietan, Arraia-Maeztu udalerriko lurzoru urbanizaezinean**

Laminoriako Errege Haraneko Administrazio Batzarrak obra baimena eskatu dio Arraia-Maeztuko Udalari, Musituko herrian arazketa sistema berria eraikitzeko.

Arraia-Maeztuko Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientean jasota dago obra proiektua, zeinaren arabera, egin nahi den jarduna baita Musituko arazketa sistema berritzea beste bat eraikiz; berri hori beste leku batean jarriko da, eta eragina izango du 5 poligonoan dauden lurzati hauetan: 87, 72, 80, 520, 519 eta 515. Udal arkitektoak egindako txostena ere erantsi da. Txosten horretan adierazten da lurzatiak lurzoru urbanizaezinean daudela, Z6 zonan (trantsizioko landa paisaiaren babes zona), udalerrian indarrean dauden arau subsidiarioen arabera. Lurzoru kategoria horretan baimenduta dago, besteak beste, landa eremuan kokatu behar diren eta isurketarik eragiten ez duten azpiegiturak egitea, baldin eta dagokien arroko erakundearen baimena eskuratzen badute.

2019ko martxoaren 13an, Arraia-Maeztuko Udalari eskatu zitzaion hirigintza txosten osagarria aurkezteko, eta ebazteko epea eten egin zen. 2019ko apirilaren 9an sartu zen Arabako Foru Aldundiko erregistroan txostena. Agiri osagarri horrek proiektuak zein lurzatiri eragingo dion jasotzen du eta adierazten du proiektua bat datorrela indarrean dagoen hirigintza araudian baimenduta dauden erabilerekin. Halaber, adierazten da isurketak egiteko baimena izapidetu dela URAren aurrean, eskaera hori 2018ko azaroaren 9ko ALHAOn (129. zk.) argitaratu zela eta Laminoriako Errege Haraneko Administrazio Batzarra baimena jasotzearen zain dagoela.

OINARRI JURIDIKOAK

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 133/2015 Foru Dekretuaren arabera eta sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluko otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bat etorriz Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, "lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den legeria sektorialak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaratutako zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hogei egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren".

Urtarrilaren 17ko 11/2019 Foru Aginduaren bitartez, hasierako onespena eman zitzaion interes publikoa adierazteko espedienteari eta jendaurrean jarri zen 20 egunez, ALHAOn argitaratu zenetik hasita. ALHAOn 2019ko urtarrilaren 30ean argitaratu zen (13. zk.). Epe horretan ez zen alegaziorik aurkeztu.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Espedienteak arroko erakundearen baimena behar du, eta betekizun hori izapidetzen ari da, Arraia-Maeztuko Udalak egindako hirigintza txostenean adierazitakoaren arabera.

Aztertzen ari garen kasu hau interes publikokoa dela esateko, azpiegituraren helburuari begiratu diogu, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 26 artikuluak jasotako oinarrizko zerbitzu bat ematea baitu helburu.

Azpiegituraren berezko ezaugarriengatik kokatu beharra dago landa eremuan.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Musituko herrian arazketa sistema berria eraikitzeko proiektuaren interes publikoa adieraztea. Proiektua Laminoriako Errege Haraneko Administrazio Batzarrak sustatu du eta Arraia-Maeztuko Udalak izapidetu, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betez, eta eragina izango du 5 poligonoko 87, 72, 80, 520, 519 eta 515 lurzatietan, zeinak lurzoru urbanizaezinean dauden eta trantsizioko landa paisaiaren babes zonan (Z6).

Bigarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatu baino lehenago aginduzko udal baimena lortzeko betebeharra, ez eta horretarako udal erabakiaren edukia aurretik ezartzen ere.

Hirugarrena. Interes publikoa adierazteak ez du administrazio bidea amaitzen, ez eta hark aurrera egin dezan eragozten ere. Beraz, ez dago haren aurkako errekurtsorik aurkezterik. Udalak, dagokion administrazio egintza emateko eskumena duen organoa den aldetik, baimena emateko edo ukatzeko hartzen duen ebazpenaren aurka bakarrik jarri ahal izango da errekurtsoa.

Gasteiz, 2019ko apirilaren 17a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua*
*JOSEAN GALERA CARRILLO*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.05.08 05:30:18 Z